# Sindikatu guztien ekintza batasunaren alde 24 orduko greba orokorra estatu osoan



## Inolako murrizketarik gizarte gastuetan!

## Murrizketarik ez hezkuntza publikoan!

## Krisia kapitalistek ordaindu dezatela!

*Ikasle Sindikatua*

Duela gutxi arte, PSOEren gobernuak esaten zigun ez zituela gastu sozialak murriztuko, eta ez zituela ahulenen kontrako neurriak hartuko. Hori esan arren, gizarte gastuak murrizten dituen plan basatia iragarri du pentsiodunen eta langileen aurka. Planak ehundaka mila langile familien bizimodua hondatuko du: arlo publikoko langileen soldata %5 murriztera dator, pentsioak izoztu ditu 2011rako eros ahalmena murriztuz, seme-alaba berriengatiko 2.500 euroko dirulaguntza kendu du, eta estatuko inbertsio publikoak 6.450 milioi euro murriztu ditu. Eraso hauek urte hauetan irakaskuntzan jasan dugun aurrekontuen murrizketa eta pribatizazio zein elitizazioaren aldeko neurriak burutzera datoz.

Hala ere, eraso hauek ez dira azkenak izango. Gobernuak lan erreforma onartzeko asmoa dauka eta praktikara eramanez, besteak beste, gazteen lan baldintza okerragoak eta kaleratze merkeagoa ekarriko ditu.

Langileei eragingo dieten neurri hauek aldiz, bankari eta enpresari handiei, krisiaren errudunei alegia, ez diete eragingo. Burtsan kotizatzen duten Telefonicak, Endesak, BBVAk eta Santanderrek, hiru hilabetetan soilik lortu duten etekina gobernuko doitze planak urte osorako aurreikusitako aurrezkia baino handiagoa izan da. Gaur egun, aurrekontuetatik 22.000 euro baino gehiago erabiltzen dira zorra kitatzeko, aurrekontu orokorretako hirugarren atalik garrantzisuena delarik. Krisia sortu duten bankariak PSOEk diru publikoaz egin duen milioika euroko erreskatearen onuradunak dira, izan ere erreskatearen dirua beraien sakeletara joan baita (150.000 milioi euro baino gehiago bi urtetan). Hauxe da zorra eta defizit publikoa gehitzearen benetako kausa, eta ez orain langileen kalterako murriztu nahi duten gizarte gastua.

**Hezkuntza publikoaren aldeko eta irakasleen lan baldintza duinen aldeko borrokarekin bat egiten dugu. Diru publikoa gizarte gastuentzat, ez banketxeentzat eta multinazionalentzat**

Euskal Herrian, ELA, LAB eta STEE-EILAS sindikatuek maiatzaren 25erako greba deialdia egin dute irakaskuntza publikoan, irakasleen lan baldintzak hondatzearen aurka eta aurrekontuak murriztearen aurka; neurri horiek irakaskuntzaren kalitatearen kaltea ekarriko baitute, ikasgelak masifikatuz, irakasle kopurua gutxituz, ordezkoen baldintzak hondatuz, materiala eta bekak murriztuz ...

EAJk eta EAk 30 urtetan hezkuntza publikoa erasotzearen ondorioz, diru publikoaz finantzaturiko hezkuntza pribatuan hezkuntza publikoan baino ikasle gehiago daude. Patxi Lopezek, PPren menpe dagoenak, ildo beretik jarraitzen du: murrizketak bermatuz, pribatizazioak areagotuz eta eskubide demokratikoak zein euskara erasoz.

Ikasle Sindikatutik gureak egiten ditugu irakasleen errebindikazioak eta 25eko borrokari atxikitzen gatzaizkio, kalitatezko eta doako hezkuntza publiko laiko eta zientifikoaren alde. Baina, gure ustez, mobilizazio hau borroka zabalago baten urratsa izan behar da, Euskal Herrian eta Estatuan gazteriari eta langileei ezarri nahi zaizkien murrizketen aurkako borroka zabalagoaren urratsa.

## Sindikatu guztien ekintza batasunaren alde! Greba orokorra estatu osoan!

Zapaterok doitze neurriak iragarri ondoren, estatuan CCOOek eta UGTk ekainaren 8rako deitu duten greba euskal gehiengo sindikalak 25erako deitu du irakaskuntza publikoaren grebarekin bat eginez.

Euskal Herriko greba estatuko grebatik banatzeko euskal gehiengo sindikalak hartu duen erabakia eta, beste aldetik, UGTk eta CCOOek langile publikoen greba gainontzeko langileengandik banatzeko erabakia ez dira biderik egokienak gobernuaren erasoei aurre egiteko. Langileek eta gazteek eman beharko luketen erantzun masiboa banaketa sindikalak ahuldu egiten du, patronalaren eta gobernuaren harrokeria areagotuz. Langileak erasotzeko burgesiak, EBk eta NDFk bat egiten badute, langileak zergatik banandu behar gara erasoei aurre egiterakoan?

Ikasle Sindikatuak 8rako deitu den grebaren alde dago aurrerapauso bat baita. Baina ezarri nahi diguten eraso handiari aurre egiteko erantzunak orokorra eta bateratua izan behar du, sindikatu guztien batasuna beharrezkoa da, baita langileena ere; hori dela eta, 8ko mobilizazioak, 25ekoak bezala, indarrak biltzeko pauso bat izan behar du, erasoei erantzun orokorra eta bateratua emateko. CCOOeko eta UGTko buruzagiek erantzukizun handia dute beren esku artean. Hilabetetan, arazoari ihes egin nahian, “no existían ataques” faltsuaren aitzakiarekin, gobernuari zein patronalari kontzesioak ematearen aldeko apustua egin dute. Estrategia hori dela medio, mobilizazio irmoak eta masiboak deitzeari uko egin diote; adibidez, Euskal Herrian gehiengo sindikalak 2009ko maiatzaren 21ean greba orokorra konbokatu zuenean Ikasle Sindikatuak bat egin zuen deialdiarekin, baina CCOOek eta UGTk ez. Estrategia hori okerra izan da eta erasoak saihestu beharrean, enpresariak eta bankariak harrotu egin ditu. Bide onera itzultzeko garaia da.

Atzera bota nahi dugun egitasmoen neurriko borroka alternatiba behar dugu. Ez gaude eraso isolatu baten aurrean. Langile klasearen sektore eta eskubide guztiak mehatxupean daude. Bai langile publikoenak, enpresa pribatukoenak, langabetuenak, pentsiodunenak zein ikasleenak, gutxi barru langileak izango garenonak… krisiak eta indarrean jartzen ari diren gobernuaren planek denoi eragiten digute. Honek sindikatu guztien partetik erantzun orokorra, jarraia eta bateratua eskatzen du: 24 orduko greba estatu osoan Zapateroren gobernua atzera egitera behartzeko.

Greziako langileen eta gazteen ereduak bidea erakutsi digu. Indartsuak gara eta borroka irabazi dezakegu! Europako sindikatuek Europa osoan greba orokorrera deitu beharko lukete; estura planak Greziatik, Portugaletik, Frantziatik, Italiatik hasita herri guztiei eragiten ari baitira.

## Krisia errudunek ordaindu dezatela: kapitalistek

Langileen borroka gurea da, are gehiago EAEn non langabezia 25 urte baino gutxiago duten gazteen artean %26,82tik gorakoa den eta lanean daudenek mila euro ere ez dute jasotzen. Langabezian eta zapalkuntzan bizitzera, miseriazko lansariak eta kontratu latzak jasatera kondenatzen gaituen sistema kapitalistak gazteak kriminalizatzen gaitu etengabeko propaganda kanpaina eginez komunikabideen bitartez. Horri guztiari aurre egiten diogu honako hau eskatuz: kalitatekoa, zientifikoa, laikoa eta demokratikoa den hezkuntza publikoa gehi, ikasketak amaitzerakoan, lanpostu duin bat prekarietaterik gabekoa eta miseriazko lansaririk gabekoa. Ikasi nahi dugu eta lan egin nahi dugu! Guk, gazteok, kapitalismoa salatzen dugu etorkizun duina ukatzen baitigu.

Gobernuaren planak ez du krisi kapitalista konponduko, ezta lanik sortuko ere. Langile klase osoari kalte egingo dio; aitzitik, bankak eta enpresariak dirua metatzen eta diru publikoarekin espekulatzen jarraitzea bermatuko du. Nazioarteko bankaren, EBren, NFDren, europako gobernuen, patronalaren eta eskumaren presioei amore eman beharrean, kapitalistek ezarri dituzten planak onartuz, PSOEko gobernua langileen familien onurarako benetako neurri sozialistak ezartzera behartu behar dugu. Gehiengoaren sakrifizioak gutxiengoaren pribilegioeak mantentzeko erabiltzeari ez!!

- **Hezkuntza publiko, zientifiko, demokratiko, laiko eta doakoaren alde.**
- **Ikasketak amaitzerakoan lan duina edo langabezialdi osoan 1.100 euroko langabezia saria eperik gabe. Lan-erreformari ez.**
- **Inolako murrizketarik ez lansarietan, osasun sisteman, hezkuntzan eta pentsioetan. Gastu publikoaren erabateko igoera zerbitzu sozialetan, langabezian dauden milaka langile, gazte eta lizentziaturi lana emateko.**

Neurri hauek aurrera eramateko, aberastasuna egon badago gizartean, benetako politika sozialista bat da falta dena aberastasuna gehiengoaren mesedetan erabiltzeko eta, besteak beste, honako neurri hauek ezartzeko:

- **Erabateko zerga igoera dirutza handiak dituztenei, enpresetako etekinei eta bankari.**
- **Bankaren nazionalizazioa langileen eta langile organizazioen kontrol demokratikoren menpe.**

# Egizu bat Ikasle Sindikatuarekin!

**www.sindicatodeestudiantes.net**

• **BIZKAIA:** 944 790 381 - bizkaia@sindicatodeestudiantes.net • **ARABA:** 945 231 202 - araba@sindicatodeestudiantes.net • **NAFARROA:** nafarroa@sindicatodeestudiantes.net

**Por la unidad de acción de todos los sindicatos**
**Por una huelga general de 24 horas en todo el estado**

# ¡Ningún recorte a los gastos sociales!

# ¡Ningún recorte a la educación pública!



## ¡Que la crisis la paguen los capitalistas!

*Ikasle Sindikatua*

El gobierno del PSOE, que hasta hace bien poco nos decía que no recortaría los gastos sociales y no aplicaría ningún ataque contra los más débiles, ha lanzado hace unos días un plan salvaje de recortes sociales contra los trabajadores y los pensionistas que empeorará las condiciones de vida de cientos de miles de familias trabajadoras: rebaja un 5% el sueldo de los trabajadores del sector público, congela las pensiones en 2011 con la consiguiente pérdida del poder adquisitivo para los jubilados, suprime la ayuda de 2.500 euros a las familias por cada nuevo hijo, y reduce la inversión pública estatal en 6.450 millones de euros. Estos ataques son el colofón a la reducción de los presupuestos de la enseñanza pública, y a todas las medidas de privatización y elitización, como el plan Bolonia, que los estudiantes hemos sufrido en estos años.

Pero estos ataques no serán los últimos. El gobierno tiene previsto aprobar una reforma laboral que de llevarse a la práctica supondrá, entre otras muchas cosas, un empeoramiento en las condiciones laborales para los jóvenes y un abaratamiento del despido.

Sin embargo, estas medidas que van a afectar a trabajadores, parados y pensionistas, no afectan de ninguna manera a los banqueros y grandes empresarios, que son los verdaderos responsables de esta crisis. En tan solo tres meses Telefónica, Endesa, el BBVA y el Santander, que cotizan en bolsa, obtuvieron un beneficio superior a todo el ahorro previsto para este año con el plan de ajuste anunciado por el gobierno. En estos momentos la tercera partida más importante en los presupuestos generales del estado está destinada a pagar los intereses de la deuda, más de 22.000 millones de euros, que irán a parar fundamentalmente a manos de los banqueros, los mismos que han sido los causantes de la crisis y se han beneficiado del rescate millonario con los fondos públicos entregados por el gobierno del PSOE (más de 150.000 millones de euros en dos años). Esa es la verdadera causa del aumento de la deuda y del déficit público, y no el gasto social que se quiere recortar en detrimento de los trabajadores.

Ikasle Sindikatua

**Apoyamos la lucha de los profesores por una educación pública y unas condiciones dignas.**
**¡El dinero público para gastos sociales, no para la banca y las multinacionales!**

En Euskadi los sindicatos ELA, LAB y STEE-EILAS han convocado una huelga en la enseñanza pública para el 25 de mayo, contra la precarización de las condiciones laborales de los profesores y los recortes en el presupuesto de la educación pública que va a repercutir negativamente en la calidad de la enseñanza, con aulas masificadas, falta de profesorado, sustitutos, material, becas, etc.

Tras 30 años de ataques a la educación pública por parte del PNV y EA, que han posibilitado que hoy la red privada financiada con fondos públicos escolarice a más alumnos que la red pública, el gobierno de Patxi López sigue siendo rehén de sus pactos con el PP y continúa en la línea de más recortes, privatizaciones, y agresiones a los derechos democráticos y al euskera.

Desde Ikasle Sindikatua hacemos nuestras las reivindicaciones del profesorado y apoyamos la lucha del 25 de mayo defendiendo una escuela pública de calidad, gratuita, democrática, laica y científica. Pero además entendemos que esta movilización es parte de una lucha más amplia contra los recortes que quieren imponernos a la juventud y a los trabajadores tanto en Euskal Herria como en el resto del Estado.

## ¡Por la unidad de acción de todos los sindicatos! ¡Por una huelga general en todo el estado!

Tras el anuncio por parte de Zapatero de las medidas de ajuste, la mayoría sindical vasca ha decidido trasladar la convocatoria de huelga general en el sector público convocada por UGT y CCOO a nivel estatal para el próximo día 8 de junio, al día 25 de mayo coincidiendo con la huelga en la enseñanza pública.

Esta decisión de separar la lucha en días diferentes en Euskal Herria por parte de la mayoría sindical vasca, o entre el sector público y el resto de los trabajadores por parte de UGT y CCOO, no es el mejor camino para parar los ataques del gobierno. La división sindical debilita la respuesta de los trabajadores y la juventud, que debe ser lo más masiva y unitaria posible, y envalentona a la patronal y al gobierno. Si la burguesía, la UE y el FMI se unen para atacar a los trabajadores europeos ¿qué sentido tiene que nosotros nos dividamos a la hora de hacerles frente?

La convocatoria estatal de huelga en el sector público el 8 de junio es un paso adelante que Ikasle Sindikatua también apoya. Pero la movilización del 8 de junio, igual que la del 25 de mayo, tienen que convertirse en un escalón que prepare las fuerzas para dar una respuesta generalizada y unitaria de todos los sindicatos, de todos los sectores de trabajadores, ante la magnitud de los ataques que pretenden imponernos. Los dirigentes de CCOO y UGT tienen una gran responsabilidad en sus manos. Durante meses, con el argumento de que "no existían ataques", cosa que no era cierta, han apostado por las concesiones al gobierno y la patronal para intentar capear el temporal. Una estrategia que les ha llevado a rechazar la organización de movilizaciones contundentes y masivas, y que se plasmó en su oposición a la huelga general organizada en Euskal Herria el 21 de mayo de 2009 por parte de la mayoría sindical vasca, que Ikasle Sindikatua sí apoyamos activamente. Esta estrategia ha sido un error y, lejos de evitar ataques, ha envalentonado a los empresarios y a los banqueros. Es el momento de rectificar.

Necesitamos una alternativa de lucha que esté a la altura de los planes que queremos echar atrás. No estamos ante un ataque aislado. Todos los sectores y todos los derechos sociales de la clase obrera están amenazados. Ya sean los trabajadores del sector público o de la empresa privada, los parados, los pensionistas o los estudiantes que en poco tiempo tendremos que incorporarnos al mercado laboral…, todos estamos afectados por esta crisis y los planes que el gobierno está aplicando. Esto exige una respuesta general, continuada en el tiempo y unitaria por parte de todos los sindicatos, que se exprese en una huelga general de 24 horas en todo el estado para obligar al gobierno de Zapatero a retroceder.

El ejemplo de los trabajadores y la juventud griega marcan el camino. ¡Somos fuertes y podemos ganar esta batalla! Incluso los sindicatos europeos deberían convocar una huelga general en toda Europa, ya que los planes de austeridad están afectando al conjunto de los países, empezando por Grecia, Portugal, Francia, Italia, etc.

## Que la crisis la paguen los culpables: los capitalistas

La lucha de los trabajadores es nuestra lucha, mucho más cuando el desempleo juvenil solo en la CAPV es superior al 26,82% entre los menores de 25 años y una mayoría de los jóvenes que trabajan no cobran ni siquiera mil euros.

El sistema capitalista que nos condena al desempleo y la explotación, a salarios de miseria y contratos precarios, intenta criminalizar a la juventud a través de los medios de comunicación y de una campaña de propaganda permanente. Frente a todo ello, nosotros respondemos exigiendo nuestro derecho a una educación pública de calidad, científica, laica y democrática, y a un puesto de trabajo al finalizar los estudios, sin precariedad y sin salarios de miseria. ¡Queremos estudiar y queremos trabajar! Somos nosotros, los jóvenes, los que acusamos al capitalismo por negarnos un futuro digno.

El plan presentado por el gobierno no va a resolver la crisis capitalista, ni va a crear empleo. Lo que va a hacer es perjudicar a toda la clase obrera, para garantizar que la banca y los empresarios sigan amasando fortunas y especulando con el dinero público. En lugar de ceder a las brutales presiones de la banca internacional, la UE, el FMI, los gobiernos europeos, la patronal y la derecha, aceptando los planes impuestos por los capitalistas, hay que obligar al gobierno del PSOE a que lleve a cabo medidas auténticamente socialistas en beneficio de las familias trabajadoras ¡Basta ya de que los sacrificios de la mayoría sirvan para mantener los privilegios de una minoría!

- **Por una educación pública, científica, democrática, laica y gratuita.**
- **Por un puesto de trabajo digno al finalizar los estudios o subsidio de desempleo indefinido de 1.100 euros al mes. No a la reforma laboral.**
- **Ningún recorte en salarios, sanidad, educación y pensiones. Aumento drástico del gasto público en los servicios sociales para dar empleo a cientos de miles de trabajadores y jóvenes licenciados en desempleo.**

Sí que hay riqueza en la sociedad para llevar a la práctica estas medidas, lo que falta es una política auténticamente socialista para ponerla al servicio de la mayoría y que defienda, entre otras, estas medidas:

- **Aumento drástico de los impuestos a las grandes fortunas y a los beneficios empresariales y a la banca.**
- **Nacionalización de la banca bajo el control democrático de los trabajadores y sus organizaciones.**

# ¡Únete a Ikasle Sindikatua!

**www.sindicatodeestudiantes.net**

• **BIZKAIA:** 944 790 381 - bizkaia@sindicatodeestudiantes.net • **ARABA:** 945 231 202 - araba@sindicatodeestudiantes.net • **NAFARROA:** nafarroa@sindicatodeestudiantes.net